

2016an ZEHAR, ETXEAN LAGUNTZEKO KONTRATAZIORAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDI PUBLIKOA

1.- Xedea: eguneroko jardueretan laguntzeko edo intentsitate txikiko arreta pertsonaleko zerbitzu pribatua kontratatzeko diru-laguntza ematea. Diru-laguntza jasotzeko, ezinbestekoa da kontratua aurkeztea.

Helburua bikoitza da:

- Autonomia galerari aurrea hartzea edo hura arintzea, eguneroko jardueretan lagunduz
- Leioako herritarrak euren ohiko ingurunean, baldintza egokietan, geratzea erraztea.

Laguntza hau ez da bateragarria familia gunean zaintza egiteko prestazio ekonomikoarekin, Autonomia Pertsonala eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta Sustatzeko Legeak aurreikusten duena, ezta Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuarekin ere.

2.- Onuradunaren profila

Izaera orokorrez, prestazio honen onuradunak izan daitezke, **autonomia galtzearen ondorioz**, egunerokoan laguntzeko zerbitzu baten behin-behineko edo behin betiko esku hartzea behar duten pertsonak edota familia unitateak (betiere, familiaren etxean ez badago lan horiek burutu ditzakeen inor), **laguntza sare soziofamiliarrik ez badute**, edo baldin badute, nahikoa ez bada.

Modu berezian, prestazioa kolektibo hauei zuzenduta dago:

- Mendekotasun egoeran dauden (I. maila 40 puntu baino gutxiago), mendekotasun egoeran egoteko arriskuan dauden edo ezgaitasun onarturik duten pertsonak, etxean laguntza behar dutenak eta intentsitate ertain edo altuko arreta pertsonalik behar ez dutenak.
- Mendekotasun gradu antzemangarririk ez duten pertsonak, baina etxeko lanak egiteko zailtasun garrantzitsuak dituztenak edo intentsitate txikiko arreta pertsonala behar dutenak.

Betiere, baldintza hauek bete behar dituzte:

- Eskaera egin baino urtebete lehenago egotea erroldatuta udalerrian, edo aparteko kasuetan, antzintasun txikiagoarekin (kasu guztietan gutxienez 6 hilabete) baina gizarte zerbitzuen aurretiazko txostenarekin.
- Laguntza sare soziofamiliar nahikorik ez izatea.
- Familia unitateak ez edukitzea dagokiokeen Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren %200 gainditzen duen urteko diru sarrera garbirik, indarreko araudiarekin ados, eta familia unitatearen kide kopuruaren arabera.

Familia unitatearen diru-sarrerak zehazteko, kide guztien diru-sarrerak aintzat hartuko dira, hau da, norbere kontura edo hirugarrenen kontura egindako lanaren irabaziak, pentsioak, ondarearengatiko diru-sarrerak, sariak, aparteko sarrerak...

Ondarearen balorazioari dagokionez (ondare higigarri eta higiezin), zenbaketatik salbuetsita geratzen dira kide bakarra duten familia unitateen urteko Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta halako 3,5 baino gutxiagoko zenbatekoak. Familia unitatearen diru-sarrera gisa zenbatuko dira muga hori gainditzen duten zenbatekoak.

Zenbaketa horretatik kanpo geratzen da ohiko etxebizitzaren balioa, eta baldin baleude, garaje partzela baten eta trasteleku baten balioa, etxebizitza dagoen higiezin berean edo hurbileko beste baten kokatuak.

Familia unitatea da etxebizitza edo alojamendu berberean bizi den pertsona bat edo gehiago, eta ezkontza edo harreman iraunkor parekide baten bidez, adopzioz, laugarren gradura arteko odol ahaidetasunez edo bigarren gradura arteko kidesunez, edo familia harrera edo tutoretza harreman baten bidez lotuta daudenak.

Eskabideak aurkezteko lekua, modua eta epea:

Eskabideetarako epea 2016 osoan zehar egongo da irekita.

Eskabideak, eredu normalduan, eta baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten agiriak Udala Gizarte Zerbitzuetan aurkeztuko dira.

Ondoren, gizarte langile batek, elkarrizketa egin ostean, kasu bakoitza balioetsiko du, horretarako ezarritako baremoaren arabera.

Leioako Udaleko Gizarte Zerbitzuek onuradunen adierazpenak egiaztatu ahal izango dituzte, behar beste datu eta txosten eskatuz beste erakunde publiko edota pribatu batzuei, interesdunaren baimenarekin.

4.- Zenbatekoa, ordainketa eta aurrekontu-muga:

Onartuko den gehienezko zenbatekoa 300 eurokoa izango da, hilean.

Kontratazioaren kostua diruz lagunduko da baremoa aplikatuz lortutako puntuazioaren arabera, hau da, kostu osoaren %100, %75 edo %50, edo ezarritako gehienezko zenbatekoa (300 euro) kontratazioak kostu hori gainditzen baldin badu.

2016ean zehar emango diren diru-laguntzak horretarako esleitutako udal aurrekontuko partidaren arabera emango dira, gehienez, 40.000 euro banatuz.

5.- Indarraldia:

Emandako diru-laguntza, hasiera baten, urtebetekoa izango da, edo urtean zehar, kontratazioak irauten duen aldirakoa.

6.- Betebeharrak:

Laguntza ekonomikoa jasotzen duten pertsonen betebeharra da bat-batean gerta daitekeen edozein egoera, diru-laguntza aldatzea edo etetea ekar lezakeena (diru-sarrerak, kontratazioaren kostua edo mota, aldaketak familia unitatean, helbidea...) jakinaraztea.

Halaber, hiru hilerik behin (martxoa, ekaina, iraila eta Abendua), kontratazioa mantendu egiten dela justifikatu behar diete Udaleko Gizarte Zerbitzuei, hileko nominaren eta Gizarte Segurantzari dagozkion kuoten ordainagiriaren bitartez.

Ez bada justifikatzen laguntza eten egingo da eta diru-itzulketa prozesua hasiko da.

7.- Ondoreak

Onuradunak behar duen arreta motari dagokionez (eguneroko jardueretarako laguntza edo intentsitate txikiko arreta pertsonala), araudi honek ez du atzera eraginik izango martxan dauden kasuekin.

Baremo ekonomikoa (gehienez 15 puntu)

Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren zenbatekoak aintzat hartuko dira, izaera orokorrean eta urtero familia unitateari dagozkionak haren kide kopuruaren arabera.

- DBEren %150ra arte..... 15 puntu.
- DBEren %150etik %175era arte 10 puntu.
- DBEren %175etik %200era 5 ptos.
- DBEren %200 baino gehiago 0 ptos.

Gizarte langilearen irizpidearen arabera (10 puntu)

Eskatzailearen ahulezia egoera, bizikidetzaren egoera, familia laguntza, familiaren erabilgarritasuna laguntzeko, etxebizitza non dagoen, etxebizitzako arkitektura hesiak eta abar balioetsiko dira.

Laguntzaren gehienezko ehunekoa kalkulatzeko

23 - 25 puntu.....	Kontratazio kostuaren %100
19 - 22 puntu.....	Kontratazio kostuaren %75
15 -18 puntu	Kontratazio kostuaren %50
15 puntu baino gutxiago	%0